



2002

Jardueren
Memoria

C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco

Jardueren Memoria

2002

C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco

Aurkezpena

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2002an zehar egindako jarduerak biltzen dituen Memoria atsegin handiz aurkezten dizuet, 2002 urtea oparoa izan baita, alde guztietatik begiratuta.

Oso urte dinamikoa izan da Euskadiko EGBrentzat. Barruan, gure erakundeek 50 bilera baino gehiago egin dituzte, Osoko Bilkurak, Batzorde Iraunkorrak, Gizarte Batzordeak, Ekonomia Batzordeak eta Memoria prestatzeko Batzordeak zenbatuta. Jardun handiagoa izan dugu, eta elkarriketa maila bizia, aberatsa eta arina izan da. Horri esker, Eusko Jaurlaritzak eskatuta 7 irizpen egin ahal izan ditugu.

Bai Eusko Jaurlaritzako Sailburu, Sailburuorde eta Zuzendariak, bai gure erakundeko batzordekideen aurrean beren ekimen eta iritziak aurkeztu dituzten gizarteko bestelako elkarte eta taldeen eledunek gure Batzordearen aurrean izandako agerraldiek lan Batzordeetako eztabaida aberastu digute. Benetan gogobete eta aberasten gaituen esperientzia da, legeen testuak interpretatzeko orduan ikaragarri laguntzen baitigute, ukitutako erakundeen iritzia ahaztu gabe, eta gure irizpenak, ahal bada, are zorrotzagoak izan daitezen ahalbidetzen digu.

Memoria honek, era berean, gure ekimenez abian jarri dugun gure ikerketa lanaren edukirik garrantzitsuenak ere laburbiltzen ditu. "Gizarte Politikak E.B.n eta EAEn", "Enplegurako politika aktiboak" eta "Jakintza Aroko soslai profesional berriak" dira ekitaldi honetan hasi ditugun hiru azterlanak.

Gizarte eztabaidak duen garrantziaz jabetuta, jendearentzat zabalik egon diren bi mintegi antolatu ditugu, zeinetan aditu ezagunek parte hartu baitzuten. Mintegi horiei eta beste jarduera batzuei esker, EGB Komunikabideetan ere agertu da.

2002ak ekarri dizkigun berrien gain-begirada amaitzeko, Batzorde honek europar politiketan aktiboki lan egiteko egin duen apustu irmoa aipatuko dut. Esparru atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeekin Nazioez Harantzagoko Sarea eratu dugu, eta Bilbo-Bordele, Euskadi-Akitania arteko lan ildoak ebaki dugu, eskualdeen arteko lankidetzak sustatzeko.

Ziur nago argitalpen honen irakurketak gure Erakundearen lana hobeto ezagutzen lagunduko dizuela. Eskerrik asko, aldezturik, EGBko lan talde osoari eta batzordekideei, beren ardurarengatik eta Batzordeari eman dioten bultzadarengatik.

Ziurtagiria

Nik, Manuel Aranburu Olaetxeak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen idazkari nagusiak, ondokoa

ZIURTATU DUT

Lehena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak, 2003ko apirilaren 9an egindako bilkura arruntean, besteak beste honako erabaki hau hartu duela:

“Bildutako kide guztien adostasunez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Jardueren Memoria, 2002ko ekitaldiari dagokiona, onestea”.

Bigarrena, argitalpen honek erabaki horretan aipaturiko Batzordearen Osoko Bilkurak onetsitako Memoriaren edukia oso-osorik jasotzen duela.

Eta, ondore egokiak izateko, hau sinatzen dut Bilbon 2003ko apirilaren 9an.

MANUEL ARANBURU OLAETXEA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Idazkari Nagusia

Aurkibidea

I. KAPITULUA.–EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA	9
• Historia	10
• Zer da EGB?	11
• Nork osatzen du?	11
• Bere zereginak	12
II. KAPITULUA.–BATZORDEAREN LEGEAN EZARRITA DAUDEN FUNTZIOEN EGINTZA	13
• Batzordearen kontsultara jarritako eta irizpena emandako arazoak ...	14
• EAEko Memoria sozio-ekonomikoari buruzko txostena lantzea	15
• Geure ekimenezko Txostena prestakuntza	16
• Euskadiko EGBk antolatutako jardunaldiak	19
III. KAPITULUA.–ERAKUNDEAREN JARDUERA	23
• Bisitak eta agerraldiak	25
• Autonomia Erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeekin	31
• Mugaz harantzagoko lankidetzak	32
IV. KAPITULUA.–GIZA BALIABIDEEN ETA BALIABIDE MATERIALEN KUDEAKETA	36
• 2002ko Aurrekontua	37
V. KAPITULUA.–EUSKADIKO EGBren DOKUMENTAZIO ETA PRENTSA ZERBITZUA	38
• Hemeroteka	39
• Biblioteka	39
• Argitalpenak	40
• Web orrialdea Interneten	41
• Dokumentazio zentroa	42
• Euskadiko EGB eta Komunikabideak	42
VI. KAPITULUA.–EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEARI APLIKA DAKIOKEEN LEGERIA	47

Eranskinak

I. ERANSKINA.-EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO ORGANOEN ETA BATZORDEEN OSAERA	51
II. ERANSKINA.-EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO ORGANO, BATZORDE ETA LAN TALDEEK EGINDAKO BILKURAK	59
III. ERANSKINA.-2002KO IKUSKARITZA TXOSTENA	70

I

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

HISTORIA

Oraingo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen aurrekariak lehenengo mundu gerra amaitu osteko lehen urteetakoak dira. 1919an Lanaren Nazioarteko Bureau-a sortu zen; nazioarteko biltzar horretan, gobernuek, langileek eta enpresaburuek parte hartu zuten, denen artean lan-baldintzak hobetuko zituen nazioarteko legeria egiteko.

Hortik abiatuta, lehenengo ituntze-tresnak sortu ziren Europan; horiek izan ziren oraingo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen aurrekariak. Lehenengo erakundea Frantzian sortu zen, 1925ean, eta, geroago, antzekoak eratu ziren Europako beste herrietan, bereziki, bigarren mundu gerra amaitu ostean.

Europako Ekonomia Erkidegoak berak, bere organo gorenaren artean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea egin zuen. Funtsean, bateratuak dira denak, euren izaeran eta zereginetan: aholkularitza-organoa da, eta bere helburua da gizarte- eta ekonomia-interes askotako ordezkariak parte hartzea gobernuen politika ekonomikoan, eta, aldi berean, aukera ematea euren artean elkarrizketan eta lankidetzan jarduteko.

Era berean, Kontseiluak ez du jarrera pasiborik; ostera, berezko ekimena du gobernuek aintzat hartu beharko dituzten iradokizunak edo ebazpenak egiteko. Aholkularitza-organo hori autonomoa da, ez da Gobernuaren menpekoa; eta bere txostenak, lotesleak ez izan arren, askotan aginduzkoak dira, eta beti dira aintzat hartzeko moduko iritziak.

ZER DA EGB?

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea* Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren aholkularitza-erakundea da, eta bere helburua hainbat ekonomia-eta gizarte-arduradunek Euskal Herriko politika ekonomikoan parte hartzea da. Kontseiluak berezko nortasun juridikoa du, EAeko Administrazioak duena ez bezalakoa, eta erabateko gaitasuna eta askatasuna ditu bere zereginak betetzeko.

Ekonomia eta finantzazko autonomiaren irizpidetik, Kontseiluak bere aurrekontua onartzen eta betearazten du; aurrekontua finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan esleitzen dizkioten kopuruak erabiltzen ditu.

Kontseiluak Bilbon du egoitza; eta, legez 1984an sortu zen arren, ez zen abian jarri 1997ra arte.

NORK OSATZEN DU?

- Kontseilua hogeita hamabi lagunek osatzen dute, eta ondoko eran dago eraturuta:
 1. Zortzi kontseilari, sindikatuen erakunde eta konfederazio nagusien ordezkartzan
 2. Zortzi kontseilari, enpresaritza-konfederazioen ordezkartzan.
 3. Zortzi kontseilari, honako hauen ordezkartzan: merkataritza-, industria-eta itsasketa-ganberak, aurrezki-kutxak eta finantza-erakundeak; kooperatibak; lan-sozietate anonimoak; arrantza-erakundeak; nekazaritza-erakundeak; kontsumitzaileen erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
 4. Zortzi aditu, prestakuntza, eskarmentu eta askatasun handikoak.
- Kontseiluak lehendakaria eta idazkari orokorra du, eta, gainera, teknika-, administrazio-eta dokumentazio-zerbitzuak ditu.
- Kontseiluko kideak lau urteko denboraldirako izendatzen dituzte, berriro aukeratuta izateko kalterik gabe.
- Erabakiak hartzeko organo gorena osoko bilkura da. Bere zereginen artean, besteak beste, lehendakariari proposatzen dio lehendakari kargua bete behar duen laguna nor den, idazkari orokorra izendatzen du, lan-batzordeak sortu eta ezabatzen ditu, eta Erakundearen aurrekontuak, urteko gizarte eta ekonomia gaietako eta jardueren txostena, eta batzordeek bidalitako irizpenen, ebazpenen eta txostenen aurreproiektuak onartzen ditu.

* 4/1984 Legeak, azaroaren 15ekoak, gero beste bi legek (ekainaren 30eko 15/1994 Legeak eta ekainaren 27ko 9/1997 Legeak) aldarazi dutenak, sortu zuen.

BERE ZEREGINAK

- Ekonomia eta gizarte arloko politikarekin zerikusia duten lege-proiektuen txostena egin beharko du nahitaez, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legearena izan ezik.
- Ekonomia eta gizarte arloko politikarekin zerikusia duten dekretu-proiektuen txostena egin beharko du nahitaez, Jaurlaritzaren iritziz, garrantzi berezia badute.
- Jaurlaritzari galderak egingo dizkio, bere eskumeneko gaien gainean.
- Irizpenak, ebazpenak edo txostenak egingo ditu, bere ekimenez edota Jaurlaritzak eskatuta, aurreko ataletan aipatutako esparruetan.
- Legebiltzarrek egiten dituen kontsultei erantzuna emango die.
- Parte hartuko du Jaurlaritzak egingo duen planean, Autonomia Erkidegoko arlo publikoko jarduera ekonomikoaren gainekoan.
- Urtero txosten bat egingo du, eta Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari aurkeztuko die; hor, EAEko ekonomia- eta gizarte-egoeraz duen iritzia azalduko du.

III

Batzordearen Legean ezarrita dauden funtzioen ekitaldia

Batzordearen Legean ezarrita dauden funtzioen ekitaldia

Indarreko legedian aurreikusitakoaren arabera, 2002an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak zazpi irizpen eman zituen, berari kontsultatutako gaien gainean. Era berean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Eusko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari EAEn ekonomia eta gizarte egoerari buruzko bere iritzi eta oharrak azaltzen dituen Urteko Memoria ere aurkeztu zien.

BATZORDEAREN KONTSULTARA JARRITAKO ETA IRIZPENA EMANDAKO ARAZOAK

Hona hemen Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2002an emandako irizpenak:

- 1/2002 IRIZPENA, EAeko Gazteentzako II. Planaren Zirriborroaren gainean.
- 2/2002 IRIZPENA, Izatezko bikoteei aplikatzeko moduko araubide juridikoa araupetzeko Lege Proiektuaren gainean.
- 3/2002 IRIZPENA, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, osasun gaietako aurretiazko borondateen gaineko Lege Proiektuaren zirriborroaren gainean.
- 4/2002 IRIZPENA, turismo automobiletan bidaiarien hiri barruko eta hiri arteko garraioa egiteari buruzko ekainaren 29ko 2/2000 Legearen arautegi proiektuaren gainean.
- 5/2002 IRIZPENA, seme-alabak dituzten familientzako diru laguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektuaren gainean.
- 6/2002 IRIZPENA, errepideko bidaiarien garraiorako Lege Aurreproiektuaren gainean.
- 7/2002 IRIZPENA, datu pertsonalen herri titularitateko fitxategiak araupezen dituen eta datuak babesteko euskal agentzia sortzen duen Lege Aurreproiektuaren gainean.

EAEko MEMORIA SOZIO-EKONOMIKOARI BURUZKO TXOSTENA LANTZEA

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte eta ekonomia gaietako 2001eko Memoria 2002ko uztailearen 24an egindako ohiko bileran onetsi zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Osoko Bilkurak. Era honetan, organo honek, beste eginkizunen artean, urteroko memoria bat egin eta Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari emateko legezko manua betetzen da.

Urte txosten honetan Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen gizarte eta ekonomia egoerari buruzko daturik garrantzitsuenak aztertzen dira, eta EGBk ordezkatzen dituen talde eta erakunde ezberdinek ados jarritako eta kapitulu deskribatzaileak aurretik aurkeztutako ondorioak, iritziak eta proposamenak azaltzen dira.



2001eko Urteko Memoria aurkeztu zeneko prentsaurrekoaren argazkia.

Bosgarren Memoria

Memoria prestatzeaz arduratu zen Lan Batzordeak txosten honi tratamendu berezia ematea erabaki zuen, bosgarren edizioa zelako. Hartara, 2001eko Memoriak kapitulu berria dakar, non 1996-2000 bosturtekoan EAEko ekonomia eta gizarte bilakaera islatzen den; sakoneko benetako arazoak ebazteko, abagune hutsekoak diren gaiak saihesteko aukera eskaini duen denbora ikuspegia emanaz.

Gainontzekoan, memoriaren atal nagusiak ondokoak dira, eta gainerako *Laburpena* eta *Ohartarazpen Orokorrak* ere sartu ditu:

- *EAEko ekonomia 2001ean*. Bertan ekonomiaren egoera alorrez eta jardueraz jarduera aztertzeaz gain, besteak beste, lan merkatuaren egoeraren analisi xehatua ere egiten da;
- *Biztanleen bizi baldintzak* eta ongizate maila, non lehenengoz aztertzen baita berariazko arazoak dituzten bi kolektiboren egoera: adineko pertsonena eta gazteena;
- *Gizarte babes eta bazterkeria EAEn*, non gizarte babesaren egoera, desberdintasun edo bazterkeria egoerak, eta horietara bideratutako baliabideak islatzen diren eta, azkenik, *EAEko legegintza jarduera*, 2001 urtean.

Euskadiko EGBren mintegia EHUren udako ikastaroetan

Bosgarren edizio honen edukia EHUko XXI. udak ikastaroen barruan aurkeztu zen jendaurrean, 2002ko irailean.

Ikastaroak lau saio izan zituen, bi egunetan banatuta, eta Gizarte eta Ekonomia gaietako Memoriaren formatuari berari jarraitu zion: lehenengoa, ekonomiaren gainean, bigarrena, gizarte babes eta bazterkeriarekin zerikusia duten alderdien gainean, hirugarrena, EAEko lan egoeraren gainean eta, azkenik, laugarren saioan, EAEko bizi baldintzei buruzko hainbat gai jorratu ziren.

Horretarako aditu garrantzitsuen partaidetza izan genuen, eta beraien iritziek eztabaidak aberastu zituzten (*informazio gehiago 21. orrialdean*).

GEURE EKIMENEZKO TXOSTENEN PRESTAKUNTZA

2002an, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak bere ekimenez zazpi txosten desberdin jorratzea erabaki zuen. Erabaki horri esker, hautatutako gaietan sakontzen da, gai guztiak gure herriaren ekonomia eta gizarte garapenean bereziki garrantzitsuak direlarik. Azterlan konplexuak dira, 2003 eta 2004an zehar soilaituz joango direnak. Hartara, EGBk iritzi sortzaile gisa duen betekizuna garatuko du, betekizun hori Euskadiko EGBren gaineko ekainaren 27ko 92/1997 Legearen 3.d.) artikuluan jasota baitago. Hona hemen onetsi diren azterlanen zerrenda:



3 mahaingurua: "Lan Merkatuaren Bilakaera EAEn".

1. EAeko eta EBko gizarte politikak

Xedea:

- Europako herrialde nagusiek garatutako gizarte edukiko politikarik garrantzitsuenak hautatzea, eta politika horien oinarri, zuzkidura ekonomikoak ezarri eta emaitzak aztertzea.
- Europar Batzordeak gai honetan dituen jarraibideak jasotzea.
- Datu hauek EAEn jarraitutako gizarte politikekin alderatzea.

2. Enplegu politikak EAEn eta EBn

Xedea:

- EAEn enplegurako garatutako politika aktibo guztiak biltzea (orientazioa, laneratzea, egiten dituzten erakunde guztien prestakuntza (Eusko Jaurlaritzza, Foru Aldundiak, Udalak, Garapen Agentziak, eta abar), horien zuzkidura ekonomikoa, eragina eta ondoreetarako hurbilketa).
- Europar herrialde nagusiek garatutako enplegu politikarik garrantzitsuenak hautatzea.
- Europar Batasunak gai honetan dituen jarraibide nagusiak adieraztea.

3. Ingurumena: herri politikak

a) *Lurralde Antolamendua eta Ingurumena*

Xedea:

- Lurralde antolamenduaren plangintzan EAEko ingurumeneko aktiboak zaindu eta hobetzeko dauden irizpideak identifikatzea, Lurralde Antolamendurako Jarraibideak aztertuz.
- Jarraibide horiek EAEko Zatikako eta Alorrez Alorreko Lurralde Planetara eraman eta aplikatzea.
- Europar Batasunak gai honetan dituen Jarraibideak aztertzea.

b) *Ingurumena zaintzeko eta ingurumena biziberritzeko europar politikak.*

Xedea:

- Ingurumenari buruzko euskal legegintza europar batasunaren legegintzaren testuinguruan txertatzea.
- Aztergai zehatz bat hautatzea (lur kutsatuak, espazio naturalak babestea, airea, zarata, ura...).
- Hautatutako gaiari buruz Europan aurreratuta dauden ekimenak aztertzea.
- EAEko politikekin alderatzea eta emaitzak ebaluatzea

4. Soslai profesional berriak Jakintzaren Aroan

Xedea:

- IKTen EAEko egoeraren ebaluazioa, herrialde garatuagokoen egoeraren aldean.
- Enplegua eta ITKak EAEn.
- Enplegu eskaria Jakintzaren Gizarte berrian: Enplegu berriak eta Trebetasun berriak.
- EAEko IKTetako profesionalen defizitaren ebaluazioa.
- Prestakuntza aro digital berrian.
- Europako orientabideak.
- Enplegu politika baterako ohartarazpenak.

5. Lana aurkitzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboak

Xedea:

- Lana aurkitzeko zailtasuna zer den definitzea.
- Lana aurkitzeko arazoak dituzten kolektiboen ezaugarriak ezartzea.
- Lana aurkitzerik ez izatea eragiten duten arrazoiak diagnostikatzea, eta zernolako pizgarri-suspertzaileek lagun zezaketen zehaztea.

6. Inmigrazioa

Xedea: oraindik erabakitzeke.

Erabakitako gaien zerrendatik, 2002an hiru hasi ziren: “Gizarte politikak EAEn eta EBn”, “Enplegurako politika aktiboak EAEn eta EBn” eta “Soslai Profesional Berriak Jakintzaren Aroan”.

EUSKADIKO EGBk ANTOLATUTAKO JARDUNALDIAK

Gizarteko eztabaidaren garrantziaz jabetuta, Euskadiko EGBk 2002an bi mintegi antolatu zituen, aditu garrantzitsuen partaidetzarekin, eta beste jarduera batzuekin batera, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak proiektio publiko handiagoa izan dezan lagundu dutenak.

“Emakumeak lan merkatuaren aurrean”

Euskadiko EGBk Emakumeen EAEko lan egoeraren inguruan eztabaida publikoa antolatzeari beharrezko iritziz zion, urteko txostenean gaia jorratu ondoren Batzor-



Jardunaldia zela-eta emandako prentsaurrekoaren irudia.



EMAKUMEAK LAN MERKATUAREN AURREAN	
18:00	Aukazape ofiziala RAPHAEL PUNTONET irakaslea Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Buzia
18:10	EGOKIARIKO emakumeen lan egarriaren inguruko azterak YOLANDA JURISTO irakaslea Euskadiko EGOKI-Gizarte Garapenerako Batzorde Buzia
18:20	Lana eta emakumeak TXARD ARTEAGA irakaslea Ernakundeako Zuzendaritza Nagusia
18:40	Gizonen eta emakumeen arteko orekakuntza eta soldatez- desberdintasunen aldeak ARANTZA UGOCOS irakaslea Eusko Herriko Unibertsitateko Katedraturia
19:00	Emakumeak eta enpresa: proposamen atzerazteak ANA ARIBESTO irakaslea Birikalkin Emakume Enprevari eta Zuzendaritza Gizonen (AED) Zuzendaritza Batzordeko Kidea
19:15	Emakumearen egoera lan merkatuan BEGONA DIEZ DE ILZURRUI irakaslea Sindikatuaren aldeko Ordezkaria, Lan Harremanetako Kontseiluko Emakumearen Batzordearen
19:30	Mahai-ingurua, hitzeri guztien partaidetza
EGUNA:	2002ko apirilaren 17an
ORdua:	18:00etatik
TOKUA:	Bilbon, Sakelena Jauregia

deak ekintza positiboko neurriak eskatu zituen, lan bizitzan ez eze gizarte harremanetako beste alor batzuetan ere izaten diren desberdintasunak zuzentzeko. Emakumeek berdintasun baldintzetan parte har dezaten erraztera bideratutako neurriak (familiar, amatasunari eta adingabeen zaintzari familiako betebeharrak gizon eta emakumeen artean banatzera zuzendutako politikak). Kontu horiek eta beste batzuk jarri ziren mahai gainean Bilboko Euskalduna Jauregian 2002ko apirilaren 17an izandako jardunaldian. Hizlari modura, eta ondorengo eztabaidetan ere, gizarte, erakunde, sindikatu eta enpresa munduko emakume adituek hartu zuten parte. Aipagarria da jardunaldiaren edukiak hedapen handia izan zuela komunikabideetan.

“Ekonomia eta gizarte bilakaera EAEn azkeneko bost urteotan”

EHUko udako XXI. ikastaroen barruan, Euskadiko EGBk eta Euskal Herriko Unibertsitateak bi eguneko ikastaroa antolatu zuten (irailaren 12an eta 13an). Mintegiaren xedea “2001eko Gizarte eta Ekonomia gaietako Memoriaren” edukiak zabaltzea zen. Gure batzordeak Donostian memoriaren 5. edizioa banatu zuen, haren edukiak zabaltu zituen eta adostasun oinarri horren gainean, aditu desberdinek –asko eta asko EGBko batzordekideak– euskal gizartearen arazo desberdinen inguruan beren iritziak azaldu, gogoeta egin eta eztabaidan aritu ziren. Ekonomia, gizarte babes eta bazterkeria, lan merkatuaren egoera eta EAeko bizi baldintzak izan ziren ikastaroaren muineko gai handiak.

Eusko Jaurlaritzako eledun Josu Jon Imaz eta EHUko errektore Manu Montero izan zituen lagun Euskadiko EGBko lehendakariak inaugurazio ekitaldian.

PROGRAMA

12 DE SEPTIEMBRE (juartes)
“Edukazio ekonomiko eta soziala en la CAPV en el último quinquenio: factores de crecimiento y estructura”

SESION DE MAÑANA

9:00 a 9:15 minutuak
 SARRAIA SA. 11. BILK. 300 PRES.
 Concepto de bilakaera: Zuzenbidea y Turismo

9:15 a 9:30 minutuak
 Presentazioa de los trabajos y de la Memoria Subeconomía 2001.
 Prof. **S. RAFAEL PONTRET**, Presidente del CES Vasco.

10:00 a 10:15 minutuak
 Conferencia de apertura
 “Quinquenio de integración económica y educativa en Euzkadi”
 Prof. **S. MITCHELL MURIEL**, Universidad de Columbia (E.U.S.A. Premio Nobel de Economía en 1990)

10:45 a 10:55 minutuak
 Tema de presentación

11:15 a 11:30 minutuak
 11.15 a 11.30 minutuak
 “Edukazio ekonomiko Faktore de crecimiento en la CAPV (I.E.)”
 Moderador: Prof. **Sra. M. C. BARRALDE**, UPV-EHU, 50000 (presentación de 10 minutos)
 Prof. **S. Gerardo Lindagorta**, experto designado por el grupo A (Organizaciones Sindicales), (15 minutos)

Prof. **S. Ricardo Artaleguze Clemente (Confederación)**, experto designado por el grupo B (Confederaciones Empresariales), (10 minutos)
 Prof. **S. Iñaki Beraketa Elatzer**, experto designado por el grupo C (Otras instituciones, instituciones y asociaciones), (10 minutos)

12:30 a 12:45 minutuak
SESION EN TARDE: “Documento Social en la CAPV”

13:00 a 13:15 minutuak
 Conferencia
 “Tema 4: Política y educación social en la CAPV”
 Prof. **S. Leticia Barasa** (Instituto, Departamento de Trabajo y Seguridad Social, Gobierno Vasco).

13:15 a 13:30 minutuak
 Mesa Redonda II
 “Mujer, integración y Turismo Social en la CAPV”
 Moderador: Prof. **S. Susana Argandoña**, Sociedad Universitaria de Euzkadi (10 minutos)
 Prof. **Sra. M^a Luz de la Cal Barredo (UPV/EHU)**, experto designado por el grupo A (Organizaciones Sindicales), (10 minutos)
 Prof. **S. Jon Bilbao Barriola (Confederación)**, experto designado por el grupo B (Confederaciones Empresariales), (10 minutos)
 Prof. **Sra. Celia Mena (ICE)**, experto designado por el grupo C (Otras instituciones, instituciones y asociaciones), (10 minutos)

17:15 a 17:30 minutuak

13 DE SEPTIEMBRE (viernes)
“Mujeres jóvenes en la CAPV”

SESION DE MAÑANA

10:00 Conferencia:
 “Tema 2: Situación de Euzkadi y Turismo”
 Prof. **D. E. Luis Tokarika**, Universidad de Ginebra de Suiza de Suiza, Suiza

10:40 a 10:55 minutuak
 11.00h Conferencia

11:00h Mesa Redonda I
 “Edukazio ekonomiko Faktore de crecimiento en la CAPV”
 Moderador: Prof. **E. Anagaitz Ochoa**, CES Vasco (presentación de 5 minutos)
 Prof. **Sra. Maria Larreategui**, experto designado por el grupo A (Organizaciones Sindicales), (10 minutos)
 Prof. **D. Jaime Paredes Nieto (Confederación)**, experto designado por el grupo B (Confederaciones Empresariales), (10 minutos)
 Prof. **D. Gonzalo Bastero Burgin (UPV/EHU)**, experto designado por el grupo C (Otras instituciones, instituciones y asociaciones), (10 minutos)

13:00 a 13:15 minutuak
SESION DE TARDE: “Condiciones de vida en la CAPV”

13:00h Conferencia:
 “Tema 3: Situación social de educación y desigualdad social y de resultados”
 Prof. **E. Julia Garbajón**, Universidad de Tecnología Universitaria Complutense de Madrid

13:40 a 13:55 minutuak
 Mesa Redonda II
 “Condiciones de vida en la CAPV: Educación, Vivienda y Asistencia”
 Moderador: Prof. **Sra. Susana Argandoña**, Sociedad Universitaria de Euzkadi (10 minutos)
 Prof. **S. Susana Baraketa de Baraketa**, experto designado por el grupo A (Organizaciones Sindicales), (10 minutos)
 Prof. **Sra. Soane Larreategui Nieto (Confederación)**, experto designado por el grupo B (Confederaciones Empresariales), (10 minutos)
 Prof. **S. Javier Rodríguez Martínez (AALE)**, experto del grupo C (Otras instituciones, instituciones y asociaciones), (10 minutos)

17:15 a 17:30 minutuak
 17.15 a Conferencia de Cierre

18:15 a 18:30 minutuak
 Acto de Cierre a cargo del Presidente del Parlamento Vasco.

CESVE

Hasierako hitzaldia 1999ko Ekonomia Nobel Saridun eta New Yorkeko Columbia Universityko irakasle kanadar Robert Mundellek eman zuen. “Hazkundera eta ekonomia eta monetazko integrazioa Europan” gaia izan zuen hizpide. Ikastaldiari amaiera emateko, Eusko Legebiltzarreko Buru Juan M.^a Atutxak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Manu Monterok hitz egin zuten.



Ekonomia Nobel Saridun Robert Mundell hasierako hitzaldian.

III

Erakundearen jarduera

Erakundearen jarduera

Ordezkatuta dauden Antolakunde, Entitate eta Elkarteek beren arteko harremana biziagotu zuten Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen barruan. Lan Batzordeez gain, Batzordekideek informazio, prestakuntza eta halako bileretan sarri hartu zuten parte. Era berean, Batzordeko Lehendakariak batzordekide guztiekin eta banan-banan hitz egin eta harremanak izateko bidea sakon jorratu zen.

24

Erakundearen ordezkartzari dagokionez, Batzordeko arduradunak EAEn aritzen diren erakunde, enpresa, komunikabide, antolakunde eta elkarte desberdinek gonbidatuta, ekitaldi, kongresu, mintegi eta mahainguru ugaritan izan ziren. Hona hemen aipagarrienak: ASLE, ELKARGI, CEBEK eta ADEGIren Batzar Orokorak; Lehendakartzak antolatutako ekitaldiak; Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak; Gipuzkoa 2020 gogoeta estrategikoaren prozesua; Euskadi Informazioaren Gizar-tean; UGTren 8. Ohiko Kongresua; Gipuzkoako Merkataritza Ganbarako Industria Sariak; Emakumeen berdintasunaren gaineko jardunaldia, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutakoa; DEIAren XXV. urtemuga; Europako lurraldeak eta alorrez alorreko politikak, Herri Administrazioiko europar institutuak antolatua; “Emakumeen Gailur Orokorra”; ELKARRIren Bake Konferentzia; EVeren XX. urtemuga; familia eta lan bizitzak uztatzea, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta; 40 urte Euskadiko Kutxa Bilbon, eta Europaren etorkizunaren gaineko Konbentzioa, Eusko Ikaskuntzak antolatutakoa, besteak beste.

Era berean, EGBko teknikariek, urtean zehar, gure erakundearen egiten duten lanaren garapenerako interesgarri ziren jardunaldi, mintegi, ikastaro edo foro interesgarrietan parte hartu zuten. Atal honetan Andaluziako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Sevillan antolatutako Inmigrazioari buruzko Jardunaldia eta Herri Administrazioiko Europar Institutuak Maastrichten antolatutako “Tourism on the European Agenda” mintegia azpimarratuko ditugu.

Euskadiko EGBko lehendakariak hizlari gisa parte hartu zuen APDK “Enpresen bitartekaritza: gatazken konponbidea produktibitatea hobetzeko prozedura gisa” gaiaren inguruan antolatutako jardunaldian. Gure Idazkari Nagusi Manuel

Aranburu Eustatek gonbidatu zuen, “Euskal gizartea eta ikuspegi demografikoak” gaiari buruzko mahaingurura, EAEko 2050 demografiako eszenatokiak aurkezteko jardunaldien barruan.

BISITAK ETA AGERRALDIAK

Euskadiko EGBk ere erakundeen aldetik bisita eta agerraldi ugari izan zituen, bai hona etorritakoenak bai guretik joandakoenak, 2002 urtean zehar. Hona hemen esanguratsuenak:

Gurean izandako bisita eta agerraldiak

- **2002/01/17 eta 18. Bisita hau:**

Maité Cosnard, Arku Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen koordinatzailea.

Bere egonaldian, RTAko koordinatzailea (Arku Atlantikoko Sarea) gure Batzordeko arduradun eta teknikariek elkartu zen, gure funtzionamendu, lan metodoen berri izateko eta mugaz gaindiko lankidetzaren edukiez eztabaidatzeko.

Gainera, urtarrilaren 18ko Batzorde Iraunkorraren bileran ere izan zen, eta bertan RTAren funtzionamenduaren eta kudeaketaren xehetasunen berri eman zuen.

- **2002/02/15 Agerraldi hau:**

Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburua; Imanol Agote, Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordea, eta José Luis Madrazo, Gazteria eta Erki-degoko Ekintzako Zuzendaria.

Kultura, Gazteria eta Kirol arloetako arduradunak beraiek eskatuta agertu ziren EGBko kideen aurrera, jaurlaritzak sustatutako II. Gazte Planaren edukiaren berri emateko. Agerraldi hartan, Kultura Sailburuak iragarri zuen, bere sailak Euskadiko EGBk II. Gazte Planaren zirriborroaren gaineko irizpidean iradokitako 23 zuzenketatik 16 sartzea onartu zuela.

- **02/03/8 Agerraldi hau:**

Javier Madrazo, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburua, eta Txema Gonzalo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Bizkaiko Lurralde Ordezkarria.

Sailburuak eta Lurralde Ordezkarriak EGBren aurrean Izatezko Bikoteei aplikatzeko Araubide Juridikoa arautzeko Legearen aurreproiektua aurkeztu zuten. Aurreproiektuaren arduradunek EGBko kideek egin zizkieten galderei eta argitasun eskariei erantzun zieten.



EGBko lehendakaria Javier Madrazo sailburuaren azalpenei adi.

- **02/03/13 Agerraldi hau:**

Sabin Intxaurraga, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburua; Iñaki Ezkurra, Ingurumen Sailburuordea; Alberto Jiménez de Aberasturi, Plangintza, Partaidetza eta Kontrolleko Zuzendaria; eta IHOBeko arduradunak (Ingurumen Kudeaketako Herri Baltzua).

Eusko Jaurlaritzako arduradunak beraiek eskatuta agertu ziren Euskadiko EGBren Batzorde Iraunkorraren aurrera, "EAEko Ingurumeneko Programa Markoa – Garapen Jasangarriko Ingurumeneko Euskal Estrategia" (2002-2020)" azaltzeko. Herri kudeatzaileek eta gizarte eragileek iritziak eta ikuspegiak jakinarazi zizkieten elkarri, dokumentu horren edukien gainean.

- **02/03/20 Agerraldi hau:**

Imanol Álvarez EHGAM, Euskal Herriko Gay Mugimenduaren eleduna

EHGAM eta GAYTASUNA gay kolektiboen ordezkarietan, Imanol Alvarez Euskadiko EGBren aurrera agertu zen, Izatezko Bikoteen Legearen aurreproiektuaren inguruko bere balorazioa, proposamenak eta iradokizunak azaltzeko. Horren gaineko irizpena prestatzeaz arduratutako Gizarte Batzordeak beharrezko ikusi zuen



Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Sailburua bere agerraldian.

kontsulta buelta bat zabaltzea, eztabaidagai zegoen lege aurreproiektuak zuzenean ukitutako kolektiboen iritzia jakiteko.

- **02/04/9 Agerraldi hau:**

Jon Buesa, Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaria, Aitor Uriarte, Garraio Zuzendaria, Asier Madariaga, Garraio Saileko Teknikaria, eta Laura Gomez, Deustuko Unibertsitatearen izenean.

Eusko Jaurlaritzako arduradunek “Garraio konbinatuaren eta Espazio Atlantikoan garatzeko behar diren azpiegituren gaineko Azterlana” aurkeztu zuten, Arku Atlantikoko eskualdeen garraio alorreko gabezia eta potentzialtasunak antzeman eta bideratzeko xedeaz. Horrez gain, egungo trafikoaren kongestioa arintzeko beren ekintza plana azaldu zuten, eta kabotaia edo Short Sea Shipping delakoa sustatzearen onurak nabarmendu zituzten (Elkarrengandik gertu dauden Portuen Sarea).

- **02/04/02 Bisita hau:**

Javier López Macías, FONAESeko Eskualde Eragiketako Zuzendari Nagusia eta Alejandro Martínez Sotelo, Zuzendari Nagusi Juridikoa.



EHGAMeko Imanol Álvarez, Gizarte Batzordearen aurrean.

Elkartasunezko Enpresei Laguntzeko Nazioko Fondoa (FONAES) Mexikoko Gobernu Federalaren bitarteko bat da, gizarte politika integral baten esparruan pobrezia ikaragarrian bizi diren taldeei laguntzeko produkzio ekintzak sustatzen dituena, haien gaitasun eta potentzialtasunak suspertu eta sendotzeko, eta gizarte garapenera sar daitezzen ahalbidetzeko. FONAESeko ordezkariak Euskadiko EGBko arduradunekin eta Euskadiko EGBko kooperatiben ordezkari den Javier Sanz batzordekidearekin egon ziren. Eskualde garapeneko eta kooperatibismoa sustatzeko egitarau desberdinak ezagutzeko asmoz etorri ziren. FONAESeko ordezkariarentzat gairik interesgarrienetako bat Eusko Jaurlaritzak prestatutako Kooperatiben Legea izan zen.

- **02/05/02 Bisita hau:**

Txaro Arteaga, EMAKUNDEko burua eta Izaskun Moyúa, Zuzendari Nagusia.

Erakundeen arteko topaketa izan zen, Euskadiko EGB eta bere jarduerak EMAKUNDEren ordezkari gorenei aurkezteko. Bileraren amaieran, bi erakundeetako arduradunek etorkizunerako lankidetzarako bideak bilatu eta jorratzeko konpromisoa hartu zuten.



“Auzolan”: Adituen agerraldia Euskadiko EGBren Gizarte Batzordearen aurrean.

- **02/06/05 Agerraldi hau:**

Joseba Azkarraga, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburua; Iñaki Zabala, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburua; eta Manuel Vigo, Gizarteratzeko Sailburuordea.

Justizia, Enplegu, Gizarte Segurantza eta Gizarteratze Sailburua EGBren aurrera gizarte eragileei, jaurlaritzak eginbidean zituen behartsuenentzako enplegu eta gizarteratze planak azaltzeko agertu zen. Sailburu eta Sailburuordeek ondoren EGBko kideek egindako galderei erantzun zieten.

- **02/10/18- Agerraldi hau:**

Javier Dean, Etxebizitza Sailburuordea eta Antonio Bartolomé, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren Plangintza eta Finantza Kudeaketaren Zuzendaria.

Etxebizitzaren Ondorengo Plan Zuzendariaren gaineko txostena aberasteko, EGBk Plan horren idazleak gonbidatu zituen, gure Batzordearen egoitzan azaldu eta defenda zezaten. Gizarte eragileek, hartara, etxebizitza planari buruzko hainbat gauza galdetu eta eztabaidatzeko aukera izan zuten.

• **02/10/25 Agerraldi hau:**

Begoña Pérez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Laneko Saileko Irakaslea; Kontxi Gabantxo, Justizia, Enplegu eta Segurantzaren sailaren gizarteratze gaietarako aholkularia; Fernando Consuegra, SARTUko Zuzendaria, Durangalderako; Belén Goiri eta Mariel Quera, Laudioko Udaleko Prestakuntza eta Enplegu alorreko teknikariak.

Euskadiko EGBren Gizarte Garapeneko Batzordeak bazterkeria egoera edo arriskuan dauden pertsonak Laneratzeko AUZOLAN programaren gaineko saio monografikoa antolatu zuen, hori araupetzeko dekretuari buruzko irizpena eskatu baitzion Jaurlaritzak gure Batzordeari. Lan horren ardura hartu zuen gizarte garapeneko Batzordeak ekimen honen eta antzeko beste batzuen gaineko informazio gehiago lortzea erabaki zuen, lana egiteko orduan irizpide gehiago eduki ahal izateko. Hartara, pertsona horiei deitu zieten, denak adituak direlako, alor desberdinetatik, gizarteratze gaietan.

Guretik joandako bisitak eta agerraldiak

• **02/03/04 Eusko Jaurlaritzaz:**

Erakundeen arteko topaketa Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko arduradunekin. Joseba Azkarraga Sailburua, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburuorde Iñaki Zabala eta, EGBren aldetik, Lehendakaria, Idazkari Nagusia eta Prentsa eta Dokumentazio Arduraduna bildu ziren.



EGBren Lehendakaria Eusko Legebiltzarreko agerraldian.

- **02/10/11 Agerraldia Eusko Legebiltzarrean:**

Eusko Legebiltzarreko Gizarte Ekintza eta Lan Batzordeak, Euzko Abertzaleak, Eusko Alkartasuna eta Ezker Batua-Berdeak Legebiltzarreko taldeen eskaria betetz, EGBren lehendakari Rafael Puntoneten agerraldia eskatu zioten, 2001eko memoria eta 2002rako jardueraren txostena ere aurkez ziezazkien.

AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEEKIN

- ***Autonomia erkidegoetako EGBen bilera, Sevillan, 2002ko maiatzaren 6an eta 7an***

Ondorengo EGBetako Lehendakari eta Idazkari Nagusiak bildu ziren: Aragoiko EGB, Asturiasko EGB, Balear Iretako EGB, Kantabriako EGB, Gaztela-Mantxako EGB, Gaztela - Leongo EGB, Ceutako EGB, Extremadurako EGB, Galiziako EGB, Errioxako EGB, Madrilgo EGB, Nafarroako EGB, Euskadiko EGB, Valentziako EGB, Estatuko EGB eta Andaluziako EGB.

Autonomia Erkidegoetako eta Espainiako EGBek ondoko gaiei buruzko erabakiak hartu zituzten: gizarte adierazleak, web orrialdea, EGBen izaera juridikoa, Arku Atlantikoko EGBAak, Gizarteratzeko Politika eta garapen maila, gazteen emigrazioa eta Inmigrazioaren gaineko Jardunaldia.

- ***Autonomia erkidegoetako EGBen bilera, Sevillan, 2002ko urriaren 23an***

Ondoko gai hauek jorratu ziren:

- EGBek XXI. mendean duten betekizuna.
- RTAn parte hartzeko interesa duten Arku Atlantikoko EGBen Bileraren txostena.
- Valentziako Erkidegoko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen proposamena, EGBen arteko web orrialdean autonomia mailako legediaren atala sartzeko.
- “Gizarte adierazleen sistema” proposamena, Aragoi, Asturias, Balear Irlak, Galizia eta Murziako EGBek osatutako lan taldeak aurkeztuta.
- TGV SUD EUROPE ATLANTIQUE Gonbidapena eta Biltzar Orokorreko estatutuak.
- “Ceuta Autonomiadun Hiriaren Txostena, gizarteratzearen gainean”.
- Aragoiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak prestatutako “Gazteen laneratzea eta bizitzako ibilbideak” gaiari buruzko azterlanaren proposamena.

- *Santander, 2002ko abenduaren 16an*

Kantabriako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen lokal berrien inaugurazio ekitaldia. Autonomia Erkidegoetako EGBetako eta Espainiako EGBko Lehendakariak eta Idazkari Nagusiak bertan elkartu ziren.

MUGAZ HARANTZAGOKO LANKIDETZA

EUSKADIKO EGB - CESR AQUITAINE bien arteko harremanak

- *Bordele, 2002ko apirilaren 11n*

Gaia: EUSKADIKO EGB - CESR Aquitaine bien arteko lankidetza
Euskadiko EGBren eta Akitaniako CESRren arteko lankidetzarako harremanaren ezarpenaren planteamendua.

Partaideak: Euskadiko EGBko eta Akitaniako CESRko lehendakariak eta bi batzordeetako arduradun teknikoak.

- *Bordele, 2002ko ekainaren 20an*

Gaia: EUSKADIKO EGB - CESR Aquitaine bien arteko lankidetza
Bi Batzordeen arteko erakunde mailako lehenengo topaketa prestatu, bien arteko lankidetza harremana ezartzera begira.

Partaideak: Euskadiko EGBko eta Akitaniako CESRko lehendakariak eta bi batzordeetako arduradun teknikoak.

- *Bordele, 2002ko uztailaren 4an*

Gaia: EUSKADIKO EGB - CESR Aquitaine. Erakundeen arteko lehenengo harremana.

Euskadiko eta Akitaniako EGBetako kideen ordezkartzen lehenengo harremana, erakundeek elkar ezagutzeko, eta bi eskualdeek elkarren gizarte eta ekonomia errealitatearen berri izateko. Bion intereseko balizko gaiak planteatu ziren, eta lankidetzarako metodologiak, bi erakundeen arteko lankidetza harremanaren oinarriak finkatzeko.

Partaideak: Bi erakundeetako Batzorde Iraunkorrak eta arduradun teknikoak.

- *Donostia, 2002ko urriaren 21ean*

Gaia: EUSKADIKO EGB - CESR Aquitaine bien arteko lankidetza
Euskadiko EGBren eta Akitaniako CESRren arteko lankidetza harremanen esparruan sartutako lehenengo lanen ikuspegiaren gaineko ideiak elkartrukatzea.

Partaideak: Bi batzordeetako lehendakariak, EGBko idazkari nagusia eta bi batzordeetako arduradun teknikoak.

Eremu Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeekin

RTA (Arku Atlantikoko Sarea)

- ***Brusela 2002ko maiatzaren 21ean eta 22an***

Nazioaz Harantzagoko Sare Atlantikoaren europar proiektua prestatzeko nazioaz harantzagoko bilera, non Europar Batzordeko ordezkariak eta Ekonomia eta Gizarte Batzordeetako eta Eremu Atlantikoko horien antzeko erakundeen hartu zuten parte, etorkizuneko SAREAREN xede eta betekizunez eztabaidatzeko bildu baitziren, eta Sarearen balizko lan esparruetako politika erkideen joeren berri eman baitzuten.

Frantzia, Erresuma Batua eta Espainiako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeetako ordezkariak elkartu ziren.

- ***Bordele, 2002ko ekainaren 20an***

Eremu Atlantikoko eskualdeetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako eta horien pareko erakundeetako ordezkarien bilera, ekonomia eta gizarte gaietarako bazkideen Nazioaz Harantzagoko Sare Atlantikoa eratzeko europar proiektuaren prestakuntzan aurrera egiteko.

Frantzia, Espainia eta Portugaleko ordezkariak izan ziren.

- ***Bilbon, 2002ko uztailaren 28an***

Nazioaz Harantzagoko Sare bat eratzeko europar proiektua prestatzeko prozesuko partaide ziren hainbat Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeetako lehendakari bildu ziren, eztabaiden garapenaren gainean zituzten ikuspegiak berri elkarri emateko.

Partaideak: Errioxako, Asturiasko, Kanariar Irletako eta Euskadiko EGBetako lehendakariak.

- ***Bilbon, 2002ko irailaren 27an***

Nazioaz Harantzagoko Sarea eratzeko europar proiektuan interesa daukaten Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen bilera, proiektuaren alderdi desberdinez eztabaidatzeko eta azkeneko proposamenak aztertzeko, sarea eratzeko behin betiko bilera egin baino lehen.

Kanariar Irletako EGBko Lehendakaria eta Idazkari Nagusia, Kantabriako EGBko Lehendakaria eta Idazkari Nagusia, Asturiasko EGBko Idazkari Nagusia eta Euskadiko EGBko arduradunak izan ziren.

- ***Donostia, 2002ko urriaren 21ean***

Eremu Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen eta antzeko erakundeen Nazioaz Harantzagoko Sarea eratzeko europar proiektuaren azkeneko prestakizunetarako bilera.

Bertaratuak: Euskadi, Kanariar Irlak, Kantabria, Ceuta, Akitania, Poitou-Charentes, Pays De Loire, Bretagne, Région Centre, North Wales E.F-etako EGBak.



Arku Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeetako arduradun gorenak, Donostiako Kursaal Jauregian izandako bileran.

- ***Santiago de Compostela, 2002ko abenduaren 20an***

“Prestige” petrolio ontziaren hondoratzea:

Prentsaurrekoa Arku Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeek sinatutako adierazpena aurkezteko: “EUROPAN BENETAKO ITSAS SEGUR-TASUNA IZAN DADIN ALDE”.

Hona hemen adierazpena sinatu zuten Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Batzordeak:

Normandia Garaia, Normandia Beherea, Bretaña, Erdialdea, Loira Herrialdea, Poitou-Charentes, Limousin, Aquitania, Midi- Pirénées, Euskadi, Kantabria, Asturias, Galizia, Andaluzia, Gaztela eta Leon, Nafarroa, Errioxa, Kanariar Irlak, Ceuta, Lisboa eskualdea eta Algarve.

Arku Atlantikoarekin zerikusia duten jardunaldietara joatea

- ***Bilbon, 2002ko otsailaren 21ean eta 22an***

Eremu Atlantikoko Garraio modu ugarien biltzearen Nazioarteko Jardunaldiak. Europako Itsasaldeko eta Periferiako Eskualdeen Konferentziako Arku Atlanti-

koko Batzordeak antolatuta, INTERREG Batasuneko Ekimenaren esparruan egingako Eremu Atlantikoko Garraio modu ugarien biltzearen gaineko azterlana aurkezteko.

- ***Santiago de Compostela, 2002ko martxoaren 22an***

Itsasaldeko eta Periferiako Eskualdeen Konferentziak (C.R.P.M.) eta Galiziako Xuntak antolatutako mintegia, "Eskualdeak lurraldearen zerbitzurako europar garraio politikaren alde".

Europar Batzordearen Liburu Zuria, garraioak European Eremu Atlantikoko eskualdeen ikuspegitik duen etorkizunaren gainekoa aztertu zen.

- ***Rennes, 2002ko martxoaren 10ean***

Gaia: Atlantikoko CESRen Aurrera Begirako Azterlanaren aurkezpena.

Frantziako eskualde atlantikoek ekonomia jardueraren erakargarritasunari laguntzen dioten faktoreen gainean Atlantikoko CESRk burututako aurrera begirako azterlanaren emaitzen aurkezpen eta sustapeneko elkarrizketa.

- ***Poitiers, 2002ko ekainaren 24an***

INTERREG IIIB Eremu Atlantikoko Batasuneko Ekimenaren Nazioaz Harantzakoko Foroa, europar programa honetako agintariak antolatuta, programaketaren epe berria abiarazteko eta eremu geografiko honetan inplikaturako bost herrialdeen proiektuen ahozko kudeatzaileei proiektuen deialdien eta onarpen eta onarpen irizpideen xehetasunen berri emateko.

Short Sea Shipping sustatzea Eremu Atlantikoan

- ***Bilbon, 2002ko otsailaren 20an***

Eremu Atlantikoan Short Sea Shipping sustatzeko europar proiektua prestatzeko bilera, hau da, itsas garraiora alda daitezkeen merkantzien joan-etorrien, itsas linea berrien bideragarritasunaren, modu ugari bateko garraioaren katea esperimentala sortzearen eta itsas garraiabidearen ingurumeneko abantailen berri zabaltzearen gaineko merkatu azterlana egiteko.

Partaideak: Eusko Jaurlaritza, Euskadiko EGB, Bilbo, Pasaia, Xixon eta Midlford Haven portuetako eta Akitaniako Eskualde Batzordeko ordezkariak,.

- ***Bordele, 2002ko apirilaren 12an***

Gaia: Itsas Kabotaiari buruzko Europar Elkarrizketa

Akitaniako Eskualde Batzordeak antolatutako Europar Elkarrizketa, Eremu Atlantikoko eskualde eta herrialdeetako agintari eta gizarte eta ekonomiako eragileak Europako Iparraldetik Iberiar Penintsulara dagoen kamioi trafikoko ikaragarriak sortzen duen arazoaz ohartarazteko.

Kabotaiaren sustapena errepideen kongestioaren alternatiba gisa aurkeztu zen.

Giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa

IV

Giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa

2002KO AURREKONTUA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2002rako aurkeztu zuen aurrekontuan 1.502.531,05 euroko zuzkidura zegoen, eta zenbateko hori guztia EAEko Aurrekontu Orokorretatik finantzatu zen.

2002ko aurrekontuaren dagokin itxieran, azpimarratu behar dugu %96,18 gauzatu zela.

2002ko aurrekontu arrunta ondoko kapitulu handi hauetan xehatu zen (zenbatekoak eurotan):

2002KO GASTUAK	AURREKONTUZ EMANDAKOA	GAUZATUA	GRADUA
	1.502.531,05	1.445.083,59	%96,18
I. kapitulua–Langileria gastuak	566.473,26	562.396,23	
II. kapitulua–Funtzionamendu gastuak	619.861,12	644.053,34	
III. kapitulua–Finantzaketa gastuak	601,01	0,00	
IV. kapitulua–Transf. eta diru lag. Gastu arrunta. Kideen transferentzia	285.545,06	217.164,87	
VI. kapitulua–Inbertsioak	30.050,60	21.469,15	
2002KO DIRU SARRERAK	1.502.531,05	1.534.339,69	%102,12
Eusko Jaurlaritza	1.502.531,05	1.503.000,00	
Finantzaketako sarrerak		28.971,18	
Bestelako sarrerak		2.368,51	

2002an zehar, eta hautespeneko prozesuak egin ondoren, mezulari bat (aldi baterako kontratua), zuzendaritzako idazkari bat (lanaldi ez-osoko kontratua) eta Administrazio Arduradun berria (kontratu mugatu gabea) hartu ziren.

Euskadiko EGBren Dokumentazio eta Prentsa Zerbitzua

V

Euskadiko EGBren Dokumentazio eta Prentsa Zerbitzua

HEMEROTEKA

Euskadiko EGBk egunero-egunero prentsan agertutako gizarte eta lan arloko albisteen *dossierra*, eta irrati eta telebistako albistegiak transkribatzen dituen beste *dossier* bat koordinatu eta banatzen ditu (bi banaketa egoten dira, goizean eta arratsaldean). Bi dossierrak posta elektronikoaren bidez banatzen dira, EGB barruan.

Hemerotekaren edukiak datutegi batean gordetzen dira, non zerbitzua hasi zenetik, 2002 urtetik ateratako informazioak bilduta dauden.

Hartara, 2002 urtea amaitzean, gizarte eta lan arloko albisterik garrantzitsuenak jasotzera bideratutako Datutegian prentsa idatziko **11.400** dokumentu eta irrati eta telebistan emandako informazioei buruzko **68.500** dokumentu zeuden. Dokumentutegi horretara edozein sar daiteke, doan (www.cesvasco.es) 2001eko irailetik.

BIBLIOTEKA

2002 urtearen amaieran, Batzordearen Bibliotekan zegoen dokumentuen fondoa **2.700** unitate fisikok osatzen zuten, denak Datutegiak erregistratuta. Zenbateko horri legedi, jurisprudenzia buletinak, eta erregistro automatizatu horretan sartzen ez diren bestelako esku orri eta aldizkari sortak ere gehitu behar zaizkio.

Fondoak automatikoki tratatu eta gordetzen dira Bibliotekaren Kudeaketako Datutegi berrian. Bitarteko horrekin, dokumentuan bertan kontsultatu eta berreskura daitezke, dokumentua eskuratuz, edo datutegian BRS formatuan jasotako bertsioaren eta aldi bereko lau erabiltzailerentzako Search delakoaren bidezko erreferentzia peko kontsultak eginez.



ARGITALPENAK

2002 urtean ondoko agiriak argitaratu eta banatu ziren:

- “2001eko Jardueren Memoria.” Edizio elebiduna, 1000 ale.
- Euskadiko EGBren berri zabaltzeko esku orria. Frantsesez, ingelesez: 750 ale.
- “Emakumearen lan egoera EAEn”. Edizio elebiduna, 500 ale.
- “2001eko Gizarte eta Ekonomia Gaien Memoria.”
 - Gaztelaniazko edizioa: 1.500 ale.
 - Euskarazko edizioa, 450 ale.
 - CD formatuko edizioa, 500 ale.
- Egindako 7 irizpenen gehigarri elebidunak. 800 aleko tiradak. Guztira 5.600.



WEB ORRIALDEA INTERNETEN

Euskadiko EGBren Web orrialdea Prentsa eta Dokumentazio sailetik kudeatzen da. Unean-unean eguneratzen da, eta Batzordean prestatzen diren erabaki, txosten, memoria eta prentsa oharrak gehitzen zaizkio.

Sartutako aldaketen ondoren, Euskadiko EGBren web gunean 70 orrialde desberdin daude. Gunea prestatzeko orduan ONCErekin eta Gorren Elkartearekin koordinatuta jardun genuen, halako ahalmenetan urri diren pertsonak ere erabili ahal izan dezaten.

DOKUMENTAZIO ZENTROA

Batzorde barruan aurten lana ikaragarri gehitu denez, ekimen, azterlan eta proiektu berriekin, bigarren seihilekoan Euskadiko EGB Dokumentazio Zentroaz hornitzea planteatu zen, Batzordeko kide eta teknikariei dokumentuzko sostengua eskaintzeko, lanak egiteko orduan.

Proiektua Prentsa eta Dokumentazio sailetik jorratu zen. Frantzia eta Espainiako beste Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde batzuen Dokumentazio Zentroak bisitatu ziren. 2002ko azaroan EGBko Batzorde Iraunkorrek planaren edukia eta 2003ko urtarrilean abian jartzea onartu zuen. Proiektu berrirako laguntzaile bat esleitzea ere onetsi zen, baita proiektua burutzeko bitarteko material eta aurrekontuzkoak bideratzea ere.

Dokumentazio Zentroak lan sistema bat ezartzen du, fondo dokumentalen erabiltzaile guztiek erraz ulertzeko modukoa, fondoan eskuragarritasuna eta etekinik handiena ateratzea bermatzeko.

Oro har, fondo dokumentalak hiru zerbitzutan antolatuko dira: Biblioteka, hemeroteka eta datutegiak euskarri desberdinetan.

EUSKADIKO EGB ETA KOMUNIKABIDEAK

Batzordean prestatzen diren Txosten, Irizpen eta Memoriak, baita denon intereseko jarduerak ere (jardunaldiak, mintegiak, agerraldiak, beste erakunde batzuekiko topaketak...) komunikabidetara bidaltzen dira, eta Euskal Herriko gizarte eta ekonomia inguruneko iritzi aitzindariengana ere bai.

Erabakiak edo irizpenak direnean, komunikabideetara bidaltzen diren Prentsa Oharra prestatzen da. Eduki horiek guztiak eskueran daude, Interneten, Euskadiko EGBren web orrialdeko "Notas de Prensa-Prentsa Oharrak" atalean.

Egoera bereziren batek hala eskatzen duenean (agerraldiak, jardunaldiak, mintegiak...) kazetariei bertaratzeko deialdia luzatzen zaie.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen jardueraren hazkunde nabarmenak (kanporako bisitak, aurkezpenak, ekimen berriak eta abar), komunikabideekin harreman handiagoa izatea ekarri zuen, eta komunikabideek gure erakundearen jarduera, gogoeta, erabaki eta proposamenen berri zabaldu zuten.

2002 urtean zehar guztira 26tan izan ginen komunikabideekin harremanetan, prentsa oharrak zirela, prentsaurreko deialdiak zirela. Lortutako hedapenaren jarraipena eginez, ondorioztatzen dugu 2002an, prentsa oharren eta agentzien artean, guztira 125 berri argitaratu zirela; era berean, Batzordearen ekimenen inguruko 46 irrati eta telebista grabaketa jaso ziren. Amaitzeko, komunikabideek eskatuta, Batzordeko Lehendakariari egindako 7 elkarrizketa ere argitaratu ziren.

2002ko prentsaurrekoak

- *2002ko otsailaren 15ean, Bilbon*

Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburu Miren Azkarate komunikabideen aurrera agertu zen, "II. Gazte Plana" azaltzeko.



- *2002ko ekainaren 5ean, Bilbon*

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburu Joseba Azkarragak EGBn bere sailak Lan, Gizarte Segurantza eta Gizarteratze gaietan zituen planak aurkeztu zituen. Batzorde Iraunkorraren aurrean aurkeztu ondoren, Sailburua eta Euskadiko EGBko Lehendakaria komunikabideen aurrera agertu ziren.



- **2002ko apirilaren 17an, Bilbon**

Euskadiko EGBk antolatutako jardunaldiaren aurkezpena: “Emakumeak lan merkatuaren aurrean”. Aurretiaz kazetarientzako prentsaurrekoa antolatu zen. Jardunaldiko hizlari guztiek hartu zuten parte: Rafael Puntonet, Batzordeko Lehendakaria; Yolanda Jubeto, Euskadiko EGBko Gizarte Garapeneko Batzordeko Burua; Txaro Arteaga, Emakundeko Zuzendari Nagusia; Arantza Ugidos, EHUKo irakaslea; Ana Armesto, Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarte; Begoña Díez de Ulzurrun, sindikatuen izenean.

- **2002ko uztailaren 30ean, Bilbon**

2001eko Gizarte eta Ekonomia Gaietako Memoriaren edukiak aurkezteko prentsaurrekoa. Lehendakariak eta Azterlan eta Proiektuen Teknikari Patxi Sasigainek hartu zuten parte.

- **2002ko irailaren 12an, Donostian**

“EAEko Bilakaera Ekonomikoa azkeneko bost urteotan” mintegiaren inaugurazioa, Euskadiko EGBk eta EHUK antolatuta. Inaugurazio ekitaldiaren ostean, Euskadiko EGBko Lehendakariak eta Robert Mundell 1999ko Ekonomia Nobel Saridunak prentsaurrekoa eman zuten.



- *2002ko urriaren 21ean, Donostian*

Nazioaz Harantzagoko Sare Atlantikoa eratzeko europar topaketa. Atsedenal-diaren ostean, Euskadiko EGBko Lehendakariak, Eremu Atlantikoko beste Ekonomia eta Gizarte Batzorde batzuetako lehendakariekin batera, euskal prentsari RTAren eraketaren xehetasunak eman zizkion.

- *2002ko abenduaren 20an, Santiago de Compostelan*

Prensaurrekoa Galiziako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen egoitzan. Arku Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeetako Lehendakariak "Europar benetako itsas segurtasuna izan dadin alde" baterako adierazpena aurkeztu zuen, "Prestige" petrolio ontzia hondoratu zela-eta.



Marcel Cazalé, Akitaniako CESRko lehendakaria; Luís Suárez, Galiziako EGBko lehendakaria, eta Rafael Puntonet Euskadiko EGBko lehendakaria izan ziren Santiago de Compostelan antolatutako prentsaurrekoan eledun aritu zirenak.

Prensa oharrak

Euskadiko EGBren Prentsa Bulegoak guztira 19 prentsa komunikatu prestatu eta Euskadiko Komunikabide guztietara banatu zituen (horietatik 7 urte horretan egindako irizpenei buruzkoak), eta denak Batzordeak zuzenean lan egindako jarduera eta eduki desberdinen gainean. Bidalitako prentsa ohar bakoitzari eta komunikabideetan azkenean argitaratu edo eman ziren albisteei jarraipen berariazkoa egin zitzaion, eta kontsultarako eskueran dagoen BRS datutegi batean bilduta daude.

Irudien artxiboa

Batzordeak bere ekitaldi eta bilerarik garrantzitsuenen argazki digitalen artxiboa dauka. Argazkiak aldizkari eta egunkariei eskaini ohi zaizkie, haien lana errazteko.

VI

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari
aplika dakioken legeria

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari aplikatu dakioken legeria

- 3/1979 LEGE ORGANIKOA, 1979ko abenduaren 18koa, Euskadiko Autonomia Estatutuaren gainekoa (BOE 306 zk., 1979-12-22koa) (EHAO 32 zk., 1980-12-01ekoa)
- 9/1997 LEGEA, ekainaren 27koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen gainekoa (EHAO 141 zk., 1997-07-24koa)
- ERABAKIA, osoko bilkurarena, 1997ko abenduaren 18koa, zeinetan Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduaren arautegia onesten den (EHAO 10. zk., 1998-01-16koa)
- 2/2000 DEKRETUA, otsailaren 25ekoa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko a), b) eta c) taldeetako kideak kargutik kendu eta berriak izendatzen diren (EHAO 58 zk., 2000-03-23koa).
- 4/2000 DEKRETUA, apirilaren 19koa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Adituen Taldeko kideak izendatzen diren (EHAO 87. zk., 2000-05-10ekoa).
- 6/2000 DEKRETUA, ekainaren 14koa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Lehendakaria izendatzen den (EHAO 117 zk., 2000-06-21ekoa).
- 7/2000 DEKRETUA, abuztuaren 2koa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kideak berritzen diren (EHAO 178 zk., 2000-09-15ekoa).

Eranskinak

Eranskinak

I. ERANSKINA

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkura.
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde Iraunkorra.
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen batzorde desberdinak.

II. ERANSKINA

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak 2002an egindako bilerak.
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Batzorde Iraunkorrek 2002an egindako bilerak.
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Lan talde desberdinek 2002an egindako bilerak.

III. ERANSKINA

- Ikuskaritzako txostena.

I. ERANSKINA

- EUSKADIKO EGBren OSOKO BILKURAKO KIDEAK.
- EUSKADIKO EGBren BATZORDE IRAUNKORREKO KIDEAK.
- EUSKADIKO EGBren LAN BATZORDE DESBERDINETAKO KIDEAK.

EUSKADIKO EGBren OSOKO BILKURAKO KIDEAK

Lehendakaria
Idazkari Nagusia

RAFAEL PUNTONET DEL RÍO
MANUEL ARANBURU OLAETXEA

A TALDEA.–Sindikatu erakunde edo konfederazioek izendatuta

Eusko Langileen Alkartasuna-ELAk proposatuta

Titularrak	Ordezkoak
MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ	AITOR ARRIZABALAGA KALTZAKORTA
BEGOÑA DíEZ DE ULZURRUN ITURRALDE	JON ANDER LLABORI ZEARRA
GERMÁN KORTABARRIA IGARTUA	ÍÑIGO SAGARNA ODRIOZOLA
BIZENTE HARRIOLA ALBIZU	AMAIA ALDASORO ITURBE

Confederación Sindical de Comisiones Obreras de Euskadi-CC.OO.k proposatuta

Titularrak	Ordezkoak
EDUARDO GARCÍA ELOSUA	ANTXON TOMASENA ALZURI
JOSE LUIS RUIZ GARCÍA	FELISA PIEDRA GAGO

Langile Abertzaleen Batzordea-LABek proposatuta

Titularra	Ordezkoa
RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ	M. ^a JOSEFA ARRAIZA NÚÑEZ

Unión General de Trabajadores de Euskadi-UGTk proposatuta

Titularra	Ordezkoa
CARLOS TREVILLA ACEBO (*ikus 54. orr.)	RAÚL ARZA VÉLEZ

B TALDEA.–Euskal Enpresen Konfederazioa-Confebask-ek proposatuta

Titularrak	Ordezkoak
AITOR OTAOLA DÍAZ DE ALDA (* ikus 54. orr.)	EDUARDO ARECHAGA CILLERUELO
FELICÍSIMO AYASTUY SÁENZ	IGNACIO SÁEZ DE GORBEA
JUAN JOSÉ EUGUI EUGUI	JON BILBAO SARALEGUI
ENRIQUE GONZÁLEZ SAL	ARTURO GARCÍA SANZ
FCO. JAVIER AZPIAZU LASUEN	PEDRO ARROYO ORTIZ
JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO	ANA GARCÍA POLANCO
MANUEL GUERRERO IGEA	JOSÉ M. ^a RUIZ URCHEGUI
JOSÉ GUILLERMO ZUBIA GUINEA	JUAN UGARTE AGUIRREZABAL

C TALDEA.–Autonomia Erkidegoko ondoko alor, erakunde, entitate, elkarteek izendatuta:

Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbarek

Titularra	Ordezkoa
JUAN LUIS MARTÍNEZ ORDORICA (*ikus 54. orr.)	JUAN M. ^a ZORRIQUETA AZPIAZU (*ikus 54. orr.)

Aurrezki Kutxek eta Finantzaketa Erakundeek:

Titularra	Ordezkoa
PEDRO MARTÍNEZ DE ALEGRÍA PINEDO	IÑAKI BERISTAIN ETXABE

Kooperatibek:

Titularra	Ordezkoa
FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA	JAVIER SALABERRIA AMESTI

Lan Sozietate Anonimoek:

Titularra	Ordezkoa
JOSÉ HERNÁNDEZ DUÑABEITIA	JAVIER MUÑECAS HERRERAS

Arrantzu erakundeek:

Titularra	Ordezkoa
AURELIO BILBAO BARANDIKA (*ikus 54. orr.)	MIGUEL IRIONDO AZURMENDI (*ikus 54. orr.)

Nekazari Elkarteek:

Titularra	Ordezkoa
FCO. JAVIER IRISARRI ELIZAGOIEN (*ikus 54. orr.)	ALFREDO MONTOYA ESTIBALEZ

Kontsumitzaileen Elkarteek:

Titularra	Ordezkoa
CELINA MENAZA ECENARRO	JON ARIÑO GALLEGO

Euskal Herriko Unibertsitateak:

Titularra	Ordezkoa
GONZALO MAESTRO BUELGA	JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA

D TALDEA.–d) – Adituen taldea osatzen duten batzordekideak

ROBERTO BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA	YOLANDA JUBETO RUIZ
JOSELU CERECEDA GARAIO	VÍCTOR LASKURAIN ARGARATE
M. ^a LUZ DE LA CAL BARREDO	JOAQUÍN OCHOA SARACHAGA
M. ^a CARMEN GALLASTEGUI ZULAICA	JOSÉ M. ^a URANGA AYESTARAN



Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ohiko Osoko Bilkura.

2002an ondoko **ordezkatzeak** izan ziren:

- Abenduaren 12ko 14/2002 Dekretuaren bidez (EHAO 2002, 244 zk., 2002-12-23koa) Nekazarien Erakundeek izendatutako Francisco Javier Irisarri Elizagoien kide titularren ordez Manu Marañón Uriarte izendatu zen.
- Urriaren 8ko 8/2002 Dekretuaren bidez (EHAO 2002, 199 zk., 2002-10-18koa), Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbarek izendatutako Juan Luis Martínez Ordorica ordezkoko kidea kide titular izatera igaro eta Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbarek izendatutako Juan María Zorriqueta kide titularra ordezkoko izatera igarotzea xedatu zen.
- Ekainaren 26ko 7/2002 Dekretuaren bidez (EHAO 133 zk., 2002-07-15koa), Unión de Trabajadores/UGTk izendatutako Carlos Trevilla Acebo kide titular eta Raúl Arza Vélez ordezkoko kide izendatzea xedatu zen, Raúl Arza Vélez eta Félix Pérez Carrascoren tokietan, hurrenez hurren.
- Ekainaren 26ko 7/2002 Dekretuaren bidez (EHAO 133 zk., 2002-07-15koa), Arratzu Elkartek izendatutako Aurelio Bilbao Barandika kide titular eta Miguel Iriondo Arizmendi ordezkoko kide izendatzea xedatu zen, Miguel Iriondo Azurmendi eta Aurelio Bilbao Barandikaren tokietan, hurrenez hurren.
- Abenduaren 19ko 29/2001 Dekretuaren bidez (EHAO 2002, 008 2002-01-11koa) Euskal Enpresen Konfederazioa-CONFEBASKEk izendatutako Aitor Otaola Díaz de Alda kide titular izendatzea xedatu zen, Eduardo Aréchaga Cillerueloren ordez.

BATZORDE IRAUNKORRA

Lehendakaria	RAFAEL PUNTONET DEL RÍO
Idazkari Nagusia	MANUEL ARANBURU OLAETXEA

A TALDEA.–Sindikatu erakunde edo konfederazioek izendatuta

Titularrak	Ordezkoak
MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ	GERMÁN KORTABARRIA IGARTUA
EDUARDO GARCÍA ELOSUA	JOSÉ LUIS RUIZ
CARLOS TREVILLA	RAÚL ARZA VÉLEZ
RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ	M. ^a JOSEFA ARRAIZA NÚÑEZ

B TALDEA.–Euskal enpresen konfederazioa-Confebask-ek izendatuta

Titularrak	Ordezkoak
FELICÍSIMO AYASTUY SÁENZ	JUAN JOSÉ EUGUI EUGUI
JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO	EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO

C TALDEA.–Autonomia Erkidegoko ondoko alor, erakunde, entitate eta elkarteetako bakoitzak izendatuta:

Titularrak	Ordezkoak
FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA	JAVIER MUÑECAS HERRERAS
GONZALO MAESTRO BUELGA	AURELIO BILBAO BARANDIKA
PEDRO MTNEZ. DE ALEGRÍA PINEDO	JUAN M. ^a ZORRIQUETA AZPIAZU
CELINA MENAZA ECENARRO	FRANCISCO JAVIER IRISARRI ELIZAGOIEN

D TALDEA.–Adituak

Titularrak	Ordezkoak
JOSÉ M. ^a URANGA AYESTARÁN	VÍCTOR LASKURAIN ARGARATE
ROBERTO BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA	YOLANDA JUBETO RUIZ

EKONOMIA GARAPENAREN ANALISIRAKO BATZORDEA

Burua

M.^a CARMEN GALLASTEGUI ZULAICA

A TALDEA.–Sindikatu erakunde edo konfederazioek izendatuta

Titularrak

JON A. LLABORI ZEARRA
ANTXON TOMASENA ALZURI
RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ
CARLOS TREVILLA ACEBO

Ordezkoak

AITOR ARRIZABALAGA KALTZAKORTA
EDUARDO GARCÍA ELOSUA
M.^a JOSEFA ARRAIZA NÚÑEZ
RAÚL ARZA VÉLEZ

B TALDEA.–Euskal enpresen konfederazioa - Confebask-ek izendatuta

Titularrak

EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO
JUAN JOSÉ EUGUI EUGUI
ENRIQUE GONZÁLEZ SAL
FELICÍSIMO AYASTUY SÁENZ

Ordezkoak

IGNACIO SÁEZ DE GORBEA
ANA GARCÍA POLANCO
(*)
(*)

C TALDEA.–Autonomia Erkidegoko ondoko alor, erakunde, entitate eta elkarteetako bakoitzak izendatuta

Titularrak

AURELIO BILBAO BARANDIKA
FCO. JAVIER IRISARRI ELIZAGOIEN
JAVIER MUÑECAS HERRERAS
PEDRO MARTÍNEZ DE ALEGRÍA

Ordezkoak

MIGUEL IRIONDO AZURMENDI
ALFREDO MONTOYA ESTIBALEZ
JOSÉ HERNÁNDEZ DUÑABEITIA
IÑAKI BERISTAIN ETXABE

D TALDEA.–Adituak

Titularrak

JOSELU CERECEDA GARAIO
JOAQUÍN OCHOA SARACHAGA

Ordezkoak

ROBERTO BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA
M.^a CARMEN GALLASTEGUI ZULAICA

(*) Ez da ordezkorik izendatu.

GIZARTE GARAPENAREN ANALISIRAKO BATZORDEA

Burua

YOLANDA JUBETO RUIZ

A TALDEA.–Sindikatu erakunde edo konfederazioek izendatuta

Titularrak

BIZENTE ARRIOLA ALBIZU

FELISA PIEDRA GAO

RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ

RAÚL ARZA VÉLEZ

Ordezkoak

MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ

JOSÉ LUIS RUIZ GARCÍA

M.^a JOSEFA ARRAIZA NÚÑEZ

CARLOS TREVILLA ACEBO

B TALDEA.–Euskal enpresen konfederazioa - Confebask-ek izendatuta

Titularrak

MANUEL GUERRERO IGEA

ENRIQUE GONZÁLEZ SAL

FELICÍSIMO AYASTUY SÁENZ

Ordezkoak

JON BILBAO SARALEGUI

FCO. JAVIER AZPIAZU LASUEN

(*)

C TALDEA.–Autonomia Erkidegoko ondoko alor, erakunde, entitate eta elkarteetako bakoitzak izendatuta

Titularrak

GONZALO MAESTRO BUELGA

CELINA MENAZA ECENARRO

FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA

JUAN LUIS MARTÍNEZ ORDORICA

Ordezkoak

JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA

JON ARIÑO GALLEGU

JAVIER SALABERRIA AMESTI

JUAN M.^a ZORRIQUETA AZPIAZU

D TALDEA.–Adituak

Titularrak

M.^a LUZ DE LA CAL BARREDO

YOLANDA JUBETO RUIZ

Ordezkoak

JOSÉ M.^a URANGA AYESTARÁN

JOSELU CERECEDA GARAIO

(*) Ez da ordezkorik izendatu.

**GIZARTE ETA EKONOMIA GAIETAKO MEMORIA
PRESTATZEKO BATZORDEA**

Burua

JOAQUÍN OCHOA SARÁCHAGA

A TALDEA.–Sindikatu erakunde edo konfederazioek izendatuta

Titularrak

MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ
ANTXON TOMASENA ALZURI
RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ
CARLOS TREVILLA ACEBO

Ordezkoak

GERMÁN KORTABARRIA IGARTUA
EDUARDO GARCÍA ELOSUA
M.ª JOSEFA ARRAIZA NÚÑEZ
RAÚL ARZA VÉLEZ

B TALDEA.–Euskal enpresen konfederazioa - Confebask-ek izendatuta

Titularrak

JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO
EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO
FELICÍSIMO AYASTUY SÁENZ

Ordezkoak

JUAN UGARTE AGUIRREZABAL
ARTURO GARCÍA SANZ
(*)

C TALDEA.–Autonomia Erkidegoko ondoko alor, erakunde, entitate eta elkarteetako bakoitzak izendatuta

Titularrak

CELINA MENAZA ECENARRO
JAVIER MUÑECAS HERRERAS
JUAN LUIS MARTÍNEZ ORDORICA
IÑAKI BERISTAIN ETXABE

Ordezkoak

JON ARIÑO GALLEGRO
JOSÉ HERNÁNDEZ DUÑABEITIA
JUAN M.ª ZORRIQUETA AZPIAZU
PEDRO MTNEZ. DE ALEGRÍA PINEDO

D TALDEA.–Adituak

Titularrak

M.ª CARMEN GALLASTEGUI ZULAICA
YOLANDA JUBETO RUIZ

Ordezkoak

M.ª LUZ DE LA CAL BARREDO

Batzordeko Idazkari Teknikoa

FCO. JAVIER SASIGAIN SAENZ DE BURUAGA

(*) Ez da ordezkorik izendatu.

II. ERANSKINA

- EGBren OSOKO BILKURAK EGINDAKO BILERAK.
- EGBren BATZORDE IRAUNKORRAK EGINDAKO BILERAK.
- EGBren LAN BATZORDE DESBERDINEK EGINDAKO BILERAK.

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN OSOKO BILKURAK 2002AN EGINDAKO BILERAK

2002ko maiatzaren 6an

- Lan batzordeetako buruak izendatzea.
- 2001eko aurrekontuaren behin behineko likidazioaren berri eman zen.
- “II. Gazte Planaren” gaineko irizpena Batzorde Iraunkorrean onetsi zela jakinarazi zen, Osoko Bilkurak hura eskuordetu baitzuen.

2002ko apirilaren 12an

- 2001eko Jardueren Memoria aho batez onetsi zen.
- 2001eko Aurrekontuaren Behin Betiko Likidazioaren Txostena eta Ikuskaritza Txostena aho batez onetsi ziren.
- “Izatezko Bikoteei aplikatzeko moduko Erregimen Juridikoa araupetzen duen Lege” proiektuaren eta “Euskal Herriko osasun arloko aurretiazko borondateen Legearen” gaineko irizpenak aho batez onetsi ziren.

2002ko maiatzaren 15ean

- EGBk Arku Atlantikoan *Short Sea Shipping* edo Itsas Kabotaiaren Sustapenaren Proiektuan parte hartzearen gainean Batzorde Iraunkorrak hartutako erabakia berrestea aho batez onetsi zen.
- “Turismoetako bidaiarien herri barruko eta herri arteko garraio publikoa araupetzeko 2/2000 Legearen Arautegi Proiektuaren” gaineko irizpena onetsi zen, EHUko Gonzalo Maestroren abstentzioarekin, eta Kooperatiben Konfederazioko Félix Pérez eta Fco. Javier Sanz jaunen aurkako botoekin.

2002ko ekainaren 5ean

- “Seme-alabak dituzten familientzako diru laguntzak araupetzen dituen Dekretu proiektuaren” gaineko irizpena aho batez onetsi zen.

2002ko uztailaren 24an

- 2001eko Gizarte eta Ekonomia gaietako Memoria aho batez onetsi zen.
- Geure ekimenez, EAeko 2002-2006 Ingurumen Programa Markoaren gaineko irizpena egiteko erabakia hartu zen.

2002ko urriaren 18an

- 2003rako Aurrekontuen Proiektua aho batez onetsi zen.
- Euskadiko EGBk RTAn (Nazioaz Harantzagoko Sare Atlantikoa) parte hartzea aho batez onetsi zen.
- Euskal Herrian dagoen inmigrazioaren gainean geure ekimenezko azterlana egitea aho batez onetsi zen.

2002ko azaroaren 22an

- “Bidaiarien errepideko garraioaren lege aurreproiektuaren” gaineko irizpen proiektua onetsi zen, boto partikularra aurkeztuko zuela iragarri zuen Bizente Harriolaren aurkako botoaz, eta Gonzalo Maestro eta Fco. Javier Sanz jaunen abstentzioez.
- Geure ekimenez hautatutako hiru gai aholkularitza banari esleitu zitzaie la jakinarazi zen.

2002ko abenduaren 4an

- “Herri titularitateko datu pertsonalen fitxategiak araupetzen dituen eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzen duen Lege Aurreproiektuaren” gaineko irizpena aho batez onetsi zen.

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRAK 2002AN EGINDAKO BILERAK

2002ko urtarrilaren 18an

- Aho batez onetsi zen II. Gazte Planaren gaineko irizpen proiektua.
- Laugarren hiruhilekoari dagokion aurrekontuaren gauzatzearen berri eman zen.
- Arku Atlantikoko Eskualdetako EGBen koordinatzaile Maité Cosnard andrea-ren azalpenak eta elkarriketa, Atlantikoko frantses eskualdeetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen jardueraren eta eskualdeen arteko lan-kidetzaren gainean.

2002ko otsailaren 15ean

- 2001eko aurrekontuaren likidazioaren berri eman zen.
- Ondoko txostenak aurkeztu ziren:

- Jaurlaritzak izapidetutako eta EGBren irizpenaren mende jarritako aurre-proiektu, proiektu eta planak.
- Batzordeak 2001ean onetsitako Irizpenen araudizko oihartzuna.
- Arku Atlantikoarekin zerikusia duten gaiak.
- Martxoaren 6rako osoko bilkurarako deialdia erabaki zen.

2002ko martxoaren 13an

- 2001eko Aurrekontuaren behin betiko Likidazioa eta 2001eko Ikuskaritza Txostena aho batez onesti ziren.
- 2001eko Jardueren Memoriaren aurreproiektua aho batez onetsi zen.
- EGBk 2000 urtean zehar onetsitako irizpenen araudizko oihartzunaren gaineko txostena aurkeztu zen.
- Apirilaren 17rako “Emakumea Lan Merkatuaren aurrean” goiburupean antolatutako Jardunaldiaren berri eman zen.
- 3. Xedearen Jarraipen Batzordeko eta II. Gazte Planeko partaidetzaren berri eman eta horren gainean eztabaidatu zen.
- Apirilaren 12rako osoko bilkura deitzea erabaki zen.

2002ko apirilaren 25ean

- Aurrekontuaren hiru hilekoko gauzatzearen berri eman zen.
- 2002ko aurrekontuko IV. kapituluaren barruko antolamendua erabaki zen.
- Agerraldien arauaren gaineko erabakia hartu zen.
- Arku Atlantikoan Itsas Kabotaia edo *Short Sea Shipping* sustatzeko proiektuaren gainean erabakia hartu zen.
- Web orrialdeari buruzko kontuak erabaki ziren.
- Maiatzaren 15erako osoko bilkura deitzea erabaki zen.

2002ko maiatzaren 31n

- Agerraldien arauari, Aurrekontuaren IV. kapituluaren banaketari eta, prozedurazko une desegokietan, Batzordearen mende jarritako kontsulten aurrean jokatzeko moduari buruzko erabakiak hartu ziren.
- Web orrialdea aurkeztu zen.
- Udako ikastaroen eta Bruselako bidaiaren berri eman zen.
- Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburu Txit Gorenaren agerraldiaren, eta Akitaniako CESRkiko harremanak aztertzeke Batzorde Iraunkorraren deialdiaren berri eman zen.
- Ekainaren 5erako osoko bilkura deitzea erabaki zen.

2002ko ekainaren 5ean

- Akitaniako CESRrekin lankidetzan jarduteko gaien gaineko proposamenak eztabaidatu eta erabakiak hartu ziren.

2002ko ekainaren 28an

- Ekonomia eta gizarte arazoetarako batzordeen nazioaz harantzagoko sare atlantikoa eratzeko proiektua aztertzeke Bordelerako bidaiaren berri eman zen.
- 2003rako aurrekontuaren IV. kapitulua negoziatu zen.
- Gizarte eta Ekonomia gaitako Memoria prestatzeko jasotako informazioa eskatzen duen kideen eskueran dagoela jakinarazi zen.
- Uztailaren 24rako osoko bilkura deitzea erabaki zen.

2002ko irailaren 18an

- 2002ko abuztuaren 31n aurrekontua zenbateraino gauzatura zegoen berri eman zen, eta 2003rako aurrekontuaren zirriborroa banatu eta aurkeztu zen.
- Azaroaren 28rako pentsatuta dagoen inmigrazioaren gaineko jardunaldiaren eskema proposamena banatu zen.
- Europako gaiak aztertu ziren.



Batzorde Iraunkorraren lan bilera.

2002ko urriaren 2an

- 2003rako aurrekontuaren aurreproiektua aho batez onetsi zen.
- Azaroaren 28ko inmigrazioaren gaineko jardunaldiari buruzko eztabaida egin zen.
- Akitaniako CESRrekin lankidetzarako gaiak hautatu ziren.
- Eusko Jaurlaritzarekiko harremanen gaineko eztabaida egin zen.
- Urriaren 18rako osoko bilkura deitzea erabaki zen.

2002ko azaroaren 15ean

- Geure ekimenezko azterlanen kontratazioaren gaineko erabakiak hartu ziren.
- Inmigrazioaren gaineko jardunaldiaren gaineko erabakiak hartu ziren.
- Dokumentazio Zentroa abian jartzea onetsi zen.
- Batzordearen organo desberdinek kontsulta betekizunean irizpenik ez emateari buruz dituzten eskumenen berri emango duen irizpen juridikoa eskatzearen gaineko erabakia hartu zen.

2002ko abenduaren 4an

- 2002ko ekitaldiaren ikuskaritza zerbitzuak esleitzearen gaineko erabakia hartu zen.
- Abenduaren 19rako osoko bilkura deitzea erabaki zen.

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN
LAN TALDE DESBERDINEK 2002AN IZANDAKO JARDUERA

Ekonomia Garapeneko Batzordea

2002ko apirilaren 9an

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera “Ingurumeneko Programa Markoaren” gaineko irizpen eskariari dagokionez bidaliko den erantzun ofizialari buruzko erabakia.

2002ko apirilaren 24an

- Sabin Intxaurre Ingurumen Sailburuari zuzendutako gutun batean Batzordearen azkeneko jarrerari buruzko edukia erabaki zen. Erabaki zen, halaber, behin betiko dokumentua Gobernu Batzordean onetsi baino lehen Euskadiko EGBri helarazi ezean, behin onetsi ondoren, Ingurumeneko Programa Markoaren gainean geure ekimenezko txostena egingo genukeela.

2002ko maiatzaren 3an

- Lehendakariak gutunean zer eta nola idatzi zen jakinarazi zuen, eta Ekonomia Garapeneko Batzordeak behin betiko dokumentuaren gaineko irizpena emateko ideiarri eusten ziola, sailak eskatu zein ez.
- Taxi Legearen Arautegiari buruzko irizpen aurreproiektua onetsi zen.

2002ko azaroaren 13an

- “Bidaiarien Errepideko Garraioaren Legearen” gaineko irizpen aurreproiektua onetsi zen.

Gizarte Garapeneko Batzordea

2002ko urtarrilaren 8an

- “II. Gazte Planaren” Zirriborroaren gaineko irizpen aurreproiektua onetsi zen.

2002ko martxoaren 20an

- Imanol Alvarez, EHGAMeko ordezkariaren (Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua) agerraldia, EHGAM eta GAYTASUNA elkarteek “Izatezko bikoteei aplikatzeko araubide juridikoa araupetzeko Lege Proiektuaren” zirriborroaren gainean zuten iritziaren berri emateko.
- Bertaratutakoek irizpen aurreproiektuaren lehenengo zirriborro baten inguruan eztabaidatu eta beren iritzi eta oharrak jakinarazi ostean, irizpena berriro idaztea erabaki zen, talde bakoitzak egindako ohartarazpenak eta proposamenak eta horren gainean hartutako erabakiak kontuan izanik.

2002ko martxoaren 27an

- “Izatezko bikoteei aplikatzeko araubide juridikoa araupetzeko Lege Proiektuaren” zirriborroaren gaineko irizpen proiektua idazteko erabakia, Batzordearen 2002ko apirilaren 12ko Osoko Bilkurara aurkezteko.
- “EAEko osasun esparruko aurretiazko borondateen gaineko lege proiektuaren” zirriborroaren gaineko irizpen proiektua idazteko erabakia, Batzordearen 2002ko apirilaren 12ko Osoko Bilkurara aurkezteko.

2002ko maiatzaren 10ean

- Batzorde Buruak “Emakumeak lan merkatuaren aurrean” jardunaldiaren garapenaren berri eman zuen.
- Idazketan hainbat aldarazpen egitea adostu ondoren, “Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak araupetzen dituen Dekretu Proiektuaren” gaineko beste irizpen aurreproiektu bat egitea proposatu zen.

2002ko maiatzaren 15ean

- Taldeetako ordezkariak irizpen aurreproiektuaren idazketa berriaren aurrean zituzten jarrerak azaldu ondoren, “Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak araupetzen dituen Dekretu Proiektuaren” gaineko irizpen aurreproiektua berriro idaztea erabaki zen.

2002ko maiatzaren 23an

- Behin “Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak araupetzen dituen Dekretu Proiektuaren” gaineko irizpenaren azkeneko idazketaren aldarazpenak azaldu ondoren, onestea erabaki zen.

2002ko ekainaren 14an

- “EAEko jai egunen egutegi ofiziala onesten duen Dekretu Proiektuaren” gainean irizpenik ez ematea erabaki zen.
- B taldea irizpena egitera ukatu zenez, “Lan ta familia bizitzak uztartzeko neurriak araupetzen dituen Dekretu Proiektuaren” gaineko irizpenik ez ematea erabaki zen.

2002ko irailaren 6an

- “Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonak lan merkatuan sartzeko AUZOLAN Programa” artikulatzen duen Dekretu proiektuaren gainean, Batzorde honetako Kideei jakinarazi zitzaizen aztergai zuten Dekretua uztailaren 24ko Gobernu Kontseiluan onetsi zela.
- AUZOLAN programaren gaineko informazio gehiago biltzea erabaki zen. Horregatik, lan merkatuan sartzeko programa honen fase desberdinetan parte hartutako talde eta erakunde desberdinetako adituak gonbidatzea erabaki zen.

2002ko urriaren 25ean

- Auzolan programaren eta Etxebizitzako Plan Zuzendariaren gaineko lan eskema ezarri zen.
- Gizarte Garapeneko Batzordean ondoko pertsonen agerraldia izan zen, AUZOLAN programaren inguruan: Begoña Pérez andrea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Laneko Saileko irakaslea; Kontxi Gabantxo andrea, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren aholkularia, gizarteratze gaietan; Fernando Consuegra jauna, SARTUKO zuzendaria Durangalderako, eta Belén Goiri eta Mariel Quera andreak Laudioko Udaleko Gizarteratze eta Laneratze Arduradunak, hurrenez hurren.

2002ko azaroaren 8an

- “Etxebizitzako Plan Zuzendariaren” gaineko irizpen aurreproiektu berria idaztea erabaki zen, non bilera horretan partekatutako ideiak sartuko ziren, baita eztabaidatu ondoren adostea legokeen beste batzuk ere.
- Era berean, EAEn etxebizitzaz dagoen egoeraren gaineko agerraldien saioa antolatzeke prozesua hastea ere erabaki zen, agerraldietan oinarrituz gogoeta sakona egiteko.
- Abian zeuden irizpen proiektuetarako lan egutegia ezarri zen.

2002ko azaroaren 22an

- Batzordearen iritziz, EGB ez dago “2002-2005 Etxebizitzako Plan Zuzendariaren” gainean irizpena denbora tarte egokian emateko baldintzetan, beraz, etxebizitzaren inguruko arazoari buruzko gogoeta prozesua egiten hastea erabaki zuen, behar izanez gero, gai horren gaineko txostena egiteko irizpide gehiago eduki ahal izateko.
- “Datu pertsonalen herri titularitateko fitxategiak araupetzen dituen eta datuak babesteko euskal agentzia sortzen duen Lege Aurreproiektuaren” gaineko irizpen aurreproiektua onetsi zen.

2002ko azaroaren 29an

- Batzordeak “Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonak lan merkatuan sartzeko AUZOLAN Programaren” gaineko irizpena egitea erabaki zuen.

2002ko abenduaren 19an

- Batzordeko kideei lau aztergaietako bakoitzerako bizpahiru aditu proposatzen direneko zirriborroa bidaltzea erabaki zen, eta epe berria ematea, kideek Batzordearen zerbitzu teknikoei beren iritzia helarazteko.
- Ondorioztatu zen ez dagoela “Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren Enplegu gaietako diru laguntzen jarduera araupetzen duten dekretu jakin batzuk aldarazteko Dekretu Proiektuaren” gaineko irizpenik.

Gizarte eta Ekonomia Gaietako Memoriarako Batzordea

2002ko urtarrilaren 23an

- Gizarte eta Ekonomia gaietako 2001eko Memoriaren lan kronograma onetsi zen.
- Udako ikastaroak antolatzekeo batzorde txikian egindako proposamenak aztertu ziren, eta Memoria aurkezteko hizlariak aho batez onetsi ziren.
- Talde bakoitzari mahainguruetako bakoitzerako beren ordezkarien izenak bidaltzeko eskatu zitzaion, iraileko jardunaldien egitaraua prestatu ahal izateko.
- EUSTATEko Zuzendari Nagusi Lourdes Llorens andreak Batzordeko kideei PRAREN metodologia eta 2000ko enplegu zenbakietan dauden aldeak azaldu zizkien.

2002ko martxoaren 15ean

- Joaquín Ochoa jauna Lan Batzordeko buru izendatu zuten.
- Lehenago bidalitako Gizarte eta Ekonomia gaietako 2001eko Memoriaren atal desberdinak aztertu ziren.
- Mahainguruetarako moderatzaileak eta adituak izendatu ziren, mahainguruetan parte hartuko zuten Euskadiko EGBko taldeetako bakoitzak proposatutakoen artean.

2002ko apirilaren 30ean

- Bilalitato Gizarte eta Ekonomia gaietako 2001eko Memoriaren atalak eta horiei egindako iradokizun desberdinak aztertu ziren.
- Gutxi gorabeherako lan egutegia ezarri zen, guztiek onartu zutena.

2002ko maiatzaren 29an

- Bidalitako Gizarte eta Ekonomia gaietako 2001eko Memoriaren atalak eta horiei egindako iradokizun desberdinak aztertu ziren.
- Gizarte eta Ekonomia gaietako 2001eko Memoria prestatzeko lan egutegia ezarri zen.

2002ko ekainaren 12an

- M.^a Luz de la Cal andreak, Donostiako udako ikastaroko bigarren mahaian hizlari izatera aldatzean, moderatzaile gisa utzitako hutsunea aztertu zen.
- Gizarte eta Ekonomia gaietako 2001eko Memoriak egindako iradokizun desberdinak aztertu ziren.

2002ko ekainaren 19an

- Gizarte eta Ekonomia gaietako Memoriaren azkeneko faseko lan egutegia aztertu zen.
- Bidalitako Gizarte eta Ekonomia gaietako 2001eko Memoriaren azkeneko zirriborroak aztertu ziren.
- Manuel Aranburu jauna Euskadiko EGBk antolatzen zuen udako ikastaroaren bigarren mahainguruko (Gizarte Babesari buruzkoa) moderatzaile izatea erabaki zen.

2002ko uztailaren 9an

- Gizarte eta Ekonomia gaietako 2001eko Memoriaren “Laburpen eta Ohartarazpenak” I. kapituluaren zirriborroa eta horretaz bidalitako iradokizunak aztertu ziren.
- Gizarte eta Ekonomia gaietako 2001eko Memoriaren aurreproiektua onetsi zen.

2002ko abenduaren 4an

- 2002ko Gizarte eta Ekonomia gaietako Memoriaren gai zerrenda prestatzeko lanak hasi ziren.
- Litekeen lan egutegiaz eztabaidatu zen.

III. ERANSKINA

- 2002KO EKONOMIA EKITALDIAREN IKUSKARITZAKO TXOSTENA

GÓMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L., inscrita al número 23 en el Registro Especial del Instituto de Auditores-Censores Jurados de Cuentas de España y al número S0204 en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas, con estudio en Bilbao, calle Diputación nº 1, emite el siguiente:

INFORME DE AUDITORÍA


1. Hemos auditado la liquidación del Presupuesto de la entidad **CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GEZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA**, correspondiente al ejercicio 2002, así como el balance de situación y la cuenta de pérdidas y ganancias del citado Organismo, cerrado al 31 de diciembre de 2002. Nuestra actuación tiene por objeto expresar una opinión sobre los citados estados financieros, basada en el trabajo realizado de acuerdo con las normas de auditoría generalmente aceptadas, que requieren el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de los mismos y la evaluación de su presentación, de los principios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.

2. Presentamos, a efectos comparativos, con cada una de las partidas de la liquidación del presupuesto, del balance de situación y de la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio 2002, las correspondientes al ejercicio anterior. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a los estados financieros del ejercicio 2002. Con fecha 21 de febrero de 2002 emitimos nuestro informe de auditoría sobre los mencionados estados financieros del ejercicio 2001, en el que expresamos una opinión favorable.

3. En nuestra opinión, la liquidación del Presupuesto del ejercicio 2002 adjunta presenta adecuadamente, según criterios presupuestarios, la actividad económica de la entidad **CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GEZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA** durante el citado ejercicio, y el balance de situación y la cuenta de pérdidas y ganancias adjuntos, correspondiente al ejercicio 2002, reflejan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y la situación financiera de dicha entidad al 31 de diciembre de 2002, y de los resultados de sus operaciones y de los recursos obtenidos y aplicados, de conformidad con principios y normas contables generalmente aceptados, que guardan uniformidad con los aplicados en el ejercicio anterior.

GÓMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L.


Fdo.: Javier Angulo Gómez



Bilbao, 12 de febrero de 2003